



2017KO BALANTZE-TXOSTENA: EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOAN GARDENTASUNAREN EZARPEN-MAILARI BURUZKOA

MAIATZA 2018

Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko erabakia (informazio publikoaren sarbideari, publizitate aktiboari eta gardentasun nahiz gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokionez Euskal Autonomia Erkideko Administrazioaren funtzionamendu-neurriak onartzen dituen) eta 2015eko balantze-txostenaren eta 2016ko balantze txostenaren berri izateko eta gardentasuna bultzatzen jarraitzeko neurriak onartzeko Gobernu Kontseiluaren erabakiak betez.



SARRERA

I. PUBLIZITATE AKTIBOAREN EZARPENA

- 1 Transparencia Internacional de España (INCAU) erakundearen ebaluazioa
- 2 Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen publizitate aktiboari buruzko betebeharrak
- 3 Aurrerapenak informazioa argitaratzeko moduan eta 2018. ekitaldirako erronkak
 - 3-1 INFORMAZIOAREN ARGITALPENAREN BILAKAERA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEETAN ETA PARTAIDETZAKO ERAKUNDEETAN, ETA ERRONKAK
 - 3-2 GARDENA GARDENTASUNAREN ATARIAREN BILAKAERA
 - 3-3 OPEN DATA EUSKADIREN BILAKAERA
- 4 Argitaratu beharreko informazioaren bilakaera eta 2018. urterako erronkak
 - 4-1 ARAUDI APLIKAGARRIA ETA GARRANTZI JURIDIKOKO INFORMAZIOA
 - 4-2 HITZARMENAK ETA KUDEAKETA-AGINDUAK
 - 4-3 FUNTZIOAK, ERAKUNDEAREN ORGANIGRAMAK, KARGU PUBLIKOEN KATALOGOAREN IBILBIDE PROFESIONALA ETA PROFILA
 - 4-4 URTEKO ETA URTE ANITZEKO PLANAK ETA PROGRAMAK, BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK
 - 4-5 KONTRATU TXIKIAK
 - 4-6 EMANDAKO LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK
 - 4-7 LZ ETA ENPLEGATUEN BATERAGARRITASUNARI BURUZKO EBAZPENAK; ORDAINSARIAK, KARGUA UZTEAREN ONDORIOZKO KALTE-ORDAINAK ETA KARGU PUBLIKOEN BATERAGARRITASUNARI BURUZKO EBAZPENAK
 - 4-8 19/2013 LEGEA BETETZEAREKIN LOTURA BEREZIRIK EZ DUTEN ARGITARATUTAKO ADIERAZLEAK

II. INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDERAKO ESKUBIDEAREN EZARPENA



Gobernu Kontseiluak, 2015eko urtarrilaren 13an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren funtzionamendurako neurriak onartzen zituen erabaki bat hartu zuen, informazio publikoa eskuratzeari, publizitate aktiboa egiteari eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokienez.

Erabaki horretan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legean ezarritakoa betetzea bermatzeko antolakuntza-eredua eta prozedura onetsi ziren, eta informazio publikorako sarbiderako eskubidearen eta publizitate aktiboaren ezarpena sail guztiekin bultzatu eta koordinatzeko agindua eman zitzaien Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzari, EAEko Administrazioarako eta haren sektore publikorako informazio publikorako sarbide-eskaeren erregistro komuna bermatze aldera.

Halaber, ezarri zen ezen, erabakia hartu eta urtebeteko epean gehienez ere, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak gardentasunaren bi alderdien (publizitate aktiboa eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea) ezarpen-mailari buruzko balantze bat aurkeztu behar zuela. 2016ko martxoaren 22an, Gobernu Kontseiluak txosten horren berri izan zuen (txosten horretan, 2015ean izandako aurrerapenei buruzko balantzea ez ezik, 2016an heldu beharreko erronkak ere ageri ziren) eta erabaki zuen EAEko Administrazioan eta haren sektore publikoan gardentasuna zabaltzen jarraitzea, bai eta 2016an lortutako aurrerapenei buruzko kontuak ematea ere. Era berean, 2017ko apirilaren 4an, 2016. urtean egindako aurrerapenen berri izan zuen eta erabaki zuen 2017an gardentasuna zabaltzen jarraitzea eta horren berri ematea; horretarako da txosten hau.



I. PUBLIZITATE AKTIBOAREN EZARPENA

1. Transparencia Internacional de España (INCAU) erakundearen ebaluazioa

2015eko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak bazuen jada GARDENA gardentasunaren ataria, eta bertan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak eta Transparencia Internacional España erakundeak autonomia-erkidegoen ebaluazioan eskatutako informazio guztia argitaratzen zen (INCAU 2014 <http://transparencia.org.es/indice-de-las-comunidades-autonomas-incau/>). Izan ere, erakunde horrek egindako azken bi ebaluazioetan, Euskal Autonomia Erkidegoak lehenengo postua lortu zuen, 100etik 97,5 puntu lortuz 2012. urtean eta 100etik 100 puntu eskuratzuz 2014an (2010. urtean 57,5 puntu erdietsi zituen).

2016ko uztaillean, Transparencia Internazionalen bi eragiketari buruzko beste ebaluazio bat jarri zen abian: 80 adierazleren argitalpenari buruzko ebaluazio kuantitatibo bat eta 10 adierazleren inguruan argitaratutako informazioaren kalitateari (irisgarritasuna, gaurkotasuna, edukien ulergarritasuna eta berrerabiltzeko aukera) buruzko ebaluazio kualitatibo bat (<http://transparencia.org.es/incau-2016/>). EAEk 100etik 100 puntu jaso zituen ebaluazio kuantitatiboan eta, horrela, lider bakarra bihurtu zen, autonomia-erkidegoen sailkapeneko lehen tokia erdietsi baitzuen. Ebaluazio kualitatiboan ere lidergoa lortu zen, Katalunia eta Murtzia erkidegoekin batera, sailkapeneko lehen taldean, honako balioespen honekin:

A: Informazioaren argitalpenak kalitate-maila altukoak dira, erraz eta aldizkakotasunez eskura daitezke, deskripzio-maila egokiarekin eta, hautaturiko adierazleen arabera, formatu berrerabilgarriak erabiltzen dira gehienetan.

Ebaluazio hori bi urtean behin egiten denez, 2017an ez da horrelakorik egon. Ebaluazioaren norainokoa eta metodologia aldeztu aurretik ezagutzen ez direnez, itxaron behar da 2018. urtean ebaluazio-prozesuaren hasiera jakinarazi arte, eskatutako informazio berria ahalik eta kalitate onenarekin eta herritarrentzat irisgarria dela bermatzeko moduan argitaratzeko.

2017an, ura kudeatzen duten organoen gardentasunaren ebaluazioa egitea egokituko zen. Transparencia Internazionalak orobat egiten du hori eta URA Uraren Euskal Agentziari eragiten dio; zuzendaritza honek 2013. urtetik lan egin du harekin,



gardentasun-indizeak hobetzeko, eta emaitza bikainak lortu ziren, taula honetan ikus daitekeen moduan:

INTRAG EBALUAZIOAREN URTEA	URAk 100etik lortutako puntuazioa	URAk ura kudeatzen duten 14 organoen rankingean duen tokia	Ura kudeatzen duten organoen multzoan lortutako batezbestekoa
2010	43,8	Hamaikagarrena	51.2
2011	50	Hamaikagarrena	59.6
2013	93.5	Lehenengoa	62.9
2015	94.9	Lehenengoa	61

Hori guztia erdiespen handia da, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza sail guztiekin eta URA Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean aritzearen eta EJIeren laguntza teknikoa izatearen ondorioz, euste-puntu ona baita lidergo-toki hori gordetzen jarraitzeko 2018an erakunde horrek edo gardentasuna bultzatzeko beste edozein nazioarteko erakundek egiten dituen ebaluazioetan.

2. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen publizitate aktiboari buruzko betebeharrak

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak informazio jakin bat argitaratzeko betebeharrari eta argitaratzeko moduari dagokien ezartzen duena kontuan hartuta, 2015ean eta 2016an aurrerapen handiak egin ziren publizitate aktiboan. Hain zuzen, 2015ean EAEko Administrazio Orokorrek lasai betetzen zituen jadanik haren betekizunak. Hala ere, ez zen hori gertatzen EAEko sektore publikoko erakundeekin eta partaidetzako erakundeekin. Beraz, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak GARDENTASUNARI, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO BIDEARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO 19/2013 LEGEAK AGINTZEN DUEN INFORMAZIOA ARGITARATZEKO (PUBLIZITATE AKTIBOA) ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDE-ESKUBIDEA BALIATZEKO EAE-KO SEKTORE PUBLIKOARENTZAKO ORIENTAZIOAK dokumentua prestatu zuen. 2016ko otsailean banatu zen, oinarritzko araudi aplikagarrian ezarritako eskakizunak



interpretatzen laguntzeko eta autonomia-erkidegoko GARDENA atarian argitaratutakoaren eta EAEko sektore publikoko erakunde bakoitzaren webguneetan argitaratutakoaren arteko koherentzia bermatzeko helburuarekin.

Gobernu Kontseiluari 2017ko apirilaren 4an bidalitako txostenean, adierazi zen ezen, eskaintzen ari zitzaien aholkularitza gorabehera, euskal sektore publikoa osatzen zuten erakundeak eta partaidetzako erakundeak ez zirela gardentasun-betebeharrak oro har betetzen ari. Beraz, bidezkoa zen egoeraren ebaluazio sakon bat egitea eta hori betetzeko sentsibilizazio- eta aholkularitza-prozesu bat abian jartzea; izan ere, nazioarteko gardentasunean lidergoari eustea herriaren helburu bat zen XI. Legegintzaldiko Gobernu Programan (2016-2020).

Prozedura honi jarraitu zaio:

1. Eragin behar zaien erakundeen hasierako norainokoa zehaztea. Hasieran zehaztu zen analisiak Ogasun eta Ekonomia Sailak EAEko sektore publikotzat eta 2015eko partaidetzako erakundetzat jotzen dituen erakunde guztiei heldu behar ziela (prozesua hasteko egunean argitaratutako azken informazioa), Eusko Jaurlaritzarekin nolabaiteko lotura duten ahalik eta erakunde gehien informatzeko eta sentsibilizatzeko asmoz, partaidetza gehiena eduki ez arren. Erakunde-mota hauek barne hartzen dira:
 - **EAEko sektore publikoa:** erakunde-administrazioa:
 - Erakunde autonomoak
 - Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak
 - Sozietate publikoak
 - EAEko sektore publikoko fundazioak
 - EAEko sektore publikoko partzuergoak
 - **Partaidetza gehiena publikoa duten eta ezein administrazioetako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak**
 - Merkataritza-sozietateak
 - EAEko Administrazio Orokorraren zuzeneko partaidetza dutenak
 - EEEren eta haren menpeko sozietateen partaidetza dutenak
 - SPRIren eta haren menpeko sozietateen partaidetza dutenak
 - Beste erakunde batzuen partaidetza dutenak



- Berezko nortasun juridikorik gabeko funtsak
 - EAEko Administrazio Orokorren zuzeneko partaidetza dutenak
 - Beste erakunde batzuen partaidetza dutenak
 - Fundazioak
 - EAEko Administrazio Orokorren zuzeneko partaidetza dutenak
 - Beste erakunde batzuen partaidetza dutenak
 - Partzuergoak
 - Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk
 - EAEko Administrazio Orokorren zuzeneko partaidetza dutenak
 - Beste erakunde batzuen partaidetza dutenak
- **EAEko sektore publikoaren partaidetza duten beste erakunde batzuk**
- Merkataritza-sozietateak
 - EAEko Administrazio Orokorren zuzeneko partaidetza dutenak
 - EEEn eta haren menpeko sozietateen partaidetza dutenak
 - EAEko sektore publikoko beste erakunde batzuen partaidetza dutenak
 - Fundazioak
 - EAEko Administrazio Orokorren zuzeneko partaidetza dutenak
 - EAEko sektore publikoko beste erakunde batzuen partaidetza dutenak
 - Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk
 - EAEko Administrazio Orokorren zuzeneko partaidetza dutenak
 - EAEko sektore publikoko beste erakunde batzuen partaidetza dutenak
 - Beste erakunde batzuk



- **Kontabilitate nazionalari dagokionez EAEko sektore publikoarekin bateratzen diren eta horretakoak ez diren erakundeak, aurreko ataletan sartuta ez daudenak**

Hasierako prozesuaren norainokotik kendu dira azken horiek, “*kontabilitate nazionalari dagokionez EAEko sektore publikoarekin bateratzen diren eta horretakoak ez diren erakundeak*, alegia: Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB), Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB), UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)”, erakunde independenteak direlako. Guztira, 215 erakundek osatu dute hasierako fasean informatu, sentsibilizatu eta ebaluatu beharreko multzoa.

2. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak WEBGUNEAN egiaztatzea Gardentasunari, informazio publikoak eskuratzeko bideari eta gobernu onari 19/2013 Legeak hizpide dituen 20 adierazleak argitaratu diren, alegia:

- 1. Garatzen dituzten funtzioak
- 2. Aplikatzekoa den araudia
- 3. Antolamendu-egitura eta organigrama, arduradunak eta haien profila eta ibilbide profesionala barne
- 4. Urteko eta urte anitzeko planak eta programak
- 5. Helburuen betetze-maila eta planen emaitzak
- 6. Kontratu guztiak
- 7. Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutako prozedura bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuek aurrekontutik hartzen duten ehunekoari buruzko datu estatistikoak
- 8. Sinatutako hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak
- 9. Diru-laguntza eta laguntza publikoak
- 10. Aurrekontuak
- 11. Urteko kontuak
- 12. Kontu-auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak
- 13. Erakundeetako goi-kargudunek eta arduradun gorenak urtero jasotako ordainsariak
- 14. Kargua uzteagatik jasotako kalte-ordainak, halakorik izanez gero



- 15. Enplegatu publikoei eragiten dieten bateragarritasunari buruzko ebazpenak eta goi-kargudunek edo parekatuek kargua uztean jarduera pribatu batean aritzea baimentzen dutenak
- 16. Ondasun eta jardueren adierazpenak, bidezkoa bada
- 17. Haien eskumeneko zerbitzu publikoen kalitatea balioesteko informazio estatistikoa
- 18. Haien jabetzako ondasun higiezinak
- 19. Gardentasunaren ataririk badagoen (Hau ez da derrigorrezkoa)
- 20. Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea baliatzeko kanala

Kontuan hartu behar da eduki horietako batzuk administrazio publikoei soilik aplikatuko litzaizkiekeela (guri dagokigunez, EAEko sektore publikoari), eta ez merkataritza-sozietateei, zuzenbide publikoko fundazioei eta administrazioek eratutako elkarteei. Zehatz-mehatz, eduki hauek dira:

- *Jardueraren plangintza eta betetze-maila (adierazle 4 eta 5)*
- *Enplegatu publikoen eta goi-kargudunen jarduera pribatuaren bateragarritasunari buruzko ebazpenak (adierazle 15)*
- *Goi-kargudunen ondasun eta jardueren adierazpena (adierazle 16)*
- *Haien jabetzakoak diren edo benetako eskubideren bat duten ondasun higiezinak (adierazle 18)*

(Horiek guztiak urdinez markatuta daude tauletan). Hori gorabehera, publizitate aktiboaren azken xedea da, Gardentasunari buruzko Legearen 5. artikuluko printzipio orokorrekin ezartzen dutenaren arabera, *aldizka eta eguneratuta argitaratzea jarduketa publikoaren funtzionamenduarekin eta kontrolarekin zerikusia duen jardueraren gardentasuna bermatzeko jakiten garrantzitsua den informazioa*. Hortaz, interesgarria da eduki guztiak argitaratzea, hori bat, haien antolaketa-egitura eta ezaugarri berezietara egokituta. Horrexegatik tauletan markatuta daude baina Legeari begira ez dira kontuan hartzen.

Azkenik, adierazi behar da eragiketa honetan bakarrik egiaztatu dela 20 adierazle horien inguruko informazioa argitaratzen den ala ez. Aitzitik, ez da argitaratutako informazioaren kalitatea kontuan hartu, hots, osorik argitaratzen den, eguneratuta dagoen edo ulergarria eta irisgarria den. Izan ere, horretarako analisi sakonago bat egin beharko litzateke eta tartean dauden erakundeek autoebaluazioa eta kanpo-egiaztapena uztartzen dituen prozesu baten bidez nahasi beharko lukete.



3. Lehen emaitzak, 2017ko uztailean

Hauek izan ziren lortutako lehen emaitzak:

Analizatutako erakundeak, guztira: 215

- 10 organismo autonomo
- Zuzenbide pribatuko 9 erakunde publiko
- 42 sozietate publiko
- 40 fundazio
- 9 partzuergo
- partaidetza gehiena publikoa duten edo ez duten 73 merkataritza-sozietate, ezein administrazio publikoren sektore publikoan sartuta ez daudenak edo beste administrazio batzuetan sartuta daudenak
- Berezko nortasun juridikorik gabeko 6 funts
- Irabazi-asmorik gabeko 25 erakunde
- Bestelako erakunde 1

<u>Analizatutako erakundeak, guztira</u>	<u>215</u>
Gardentasunari buruzko informazioa argitaratuta ez daukaten erakundeak	29
Nolabaiteko informazioa argitaratuta daukaten erakundeak	185
1. Garatzen dituzten funtzioak	22
2. Aplikatzekoa den araudia	78
3. Antolamendu-egitura eta organigrama, arduradunak eta haien profila eta ibilbide profesionala barne	55
4. Urteko eta urte anitzeko planak eta programak	59
5. Helburuen betetze-maila eta planen emaitzak	41
6. Kontratu guztiak	86
7. Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutako prozedura bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuek aurrekontutik hartzen duten ehunekoari buruzko datu estatistikoak	8
8. Sinatutako hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak	29
9. Diru-laguntza eta laguntza publikoak	26
10. Aurrekontuak	68
11. Urteko kontuak	73
12. Kontu-auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak	62
13. Erakundeetako goi-kargudunek eta arduradun gorenek urtero jasotako ordainsariak	32
14. Kargua uzteagatik jasotako kalte-ordainak, halakorik izanez gero	17
15. Enplegatu publikoei eragiten dieten bateragarritasunari buruzko ebazpenak eta goi-kargudunek edo parekatuek kargua uztean jarduera pribatu batean aritzea	24



<i>baimentzen dutenak</i>	
16. Ondasun eta jardueren adierazpenak, bidezkoa bada	6
17. Haien eskumeneko zerbitzu publikoen kalitatea balioesteko informazio estatistikoa	8
18. Haien jabetzako ondasun higiezinak	18
19. Gardentasunaren ataririk badagoen (argitaratzea ez da derrigorrezkoa)	73
20. Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea baliatzeko kanala	17
Informazio guztia (20 adierazle) argitaratuta daukaten erakundeak	1

4. Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordearen 2017ko irailaren 13ko bilera

2017ko irailean, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak lehen berrikuspenaren emaitzak aurkeztu zizkion batzordeari eta lan-plan bat proposatu zuen, hain zuzen:

- Sailak haiei atxikita egoteagatik edo haien partaide izateagatik esleitutako erakunde guztiekin harremanetan jarriko dira egindako ebaluazioaren emaitzen berri emateko, argitaratuta ez daukaten informazioa argitara dezaten, eman dizkieten orientabideekin, abenduaren amaiera baino lehen.
- Informazioa argitaratu ostean, erakundeek esteken berri eman beharko dute, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak benetan bete dutela egiaztatu ahal izan dezan.
- Informazioa egiaztatutakoan, emaitzak itzuliko dira berriro eta berrikusteko azken epea emango da.

5. Sailek erakundeekin harremanetan egotea eta edukiak webgune instituzionaletan argitaratzea. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak erakundeei laguntza eta aholkuak ematea

Urrian, azaroan eta abenduan, argitaratutako informazioa biltzen duten estekak helarazi ziren eta erakundeei aholkuak emateko mezuak bidali ziren.

Bestalde, sail batzuek uste dute erabilgarria dela gardentasun-betebeharrak Eusko Jaurlaritzak edo haren sektore publikoak partaidetzaren bat daukaten erakunde guztietara oro har hedatzea; hala ere, haien iritziz, azken txostenaren norainokotik kanpo utzi behar dira argi eta garbi beste administrazio batzuen menpe dauden



erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren edo haren erakunde atxikien gutxieneko partaidetza daukatenak eta pribatuak direnak, adierazle batzuek bakarrik eragingo bailiekete, baita desagertu direnak edo likidatzeko prozesuan, partaidetzak saltzekoan, etab. daudenak ere. Bereziki, erakunde hauek geratu dira amaierako txostenetik kanpo:

- Akitania/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdea, sozietatearen egoitza Hendaian dagoenez frantses erakundetzat jotzen delako.
- Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoa, Aragoiko Gobernuaren menpe dagoelako.
- Sologongo Zentral Hidroelektrikoa SA; Biosanmarkos SA; Biosasieta SA; Errenteriako Zentral Hidroelektrikoa SA; Biogardelegi SA; Neikertek SL; Ekintzaile XXI, Arrisku Kapitalaren Funtza; Elkano XXI, Arrisku Kapitalaren Funtza; Bidelek Sareak AIE; Cogeneración Bergara AIE; Orubide SA; eta ETORBIZI, Berrikuntza Soziosanitariorako Euskal Fundazioa, likidatuta edo beste batzuetan fusionatuta daudelako.
- Euskotren Participaciones SA, ez jarduerarik ez langilerik ez daukalako eta haren informazioa Euskotrenen webgunean sartuta dagoelako.
- Zumaia Kirol Portua SA, ez langilerik ez jarduerarik ez daukalako.
- Aberekin SA; Bilbao Exhibition Centre SA; Ekarpen SPE; Alta Velocidad Vitoria Gasteizko Abiadura Handia SA; Bilbao Ria 2000 SA; CTV-Gasteizko Garraio Zentroa SA; Ortzibia SL; BILBAO Exhibition Centre Solar AIE; Irungo Aduana Guneko Elkartea Sustatzailea SA (ZAISA); Via Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA; CEDEMI Ezkerraldea Enpresak Garatzeko Zentroa SA; BIC Gipuzkoa Berrilan SA; Burtzeña Enpresa Parkea SA; Garaia Berrikuntza Gunea Koop.; Urdulizko Industrialdea SA; Ibar Zaharra SA; Vitoria Integrated Air Services SA; Lekunberriko Esnekari Erakundea SA; Hazilur Enpresen Sustapena SA; Vacunek SL; Metro Bilbao SA; COTRABI - Bizkaiko Garraio Partzuergoa; Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Ordezkaritza; Bilbao Metropoliarra Birbizteko Elkartea; Unired Elkartea; TRAGSA; Araba Logística SA - Arasur; Abra-Getxo Kirol Portua; Bioartigas SA; BBE - Bahía de Bizkaia Electricidad; Bahía de Bizkaia Gas - BBG; Gestión de Centrales del Añarbe SA - GECASA; MICRONATUR SA; Oñatiko Ur-Jauziak SA; Zabalgardi SA; Telur Geotermia y Agua SA; Ibil Gestor de Carga Vehículo Eléctrico SA; Sociedad Promotora Bilbo Gas Hub SL; Enagás Transporte del Norte SL; Itsas Gas Bunker Supply SL; Gasteizko Industria Lurra SA, GILSA; Kultur Klub Euskadi SL; Latxa Esnea Kooperatiba Elkartea; Federación de Organismos o Entidades



de Radio y Televisión Autonómicas (FORTA); Tecnalía Corporación Tecnológica; Lursail SL; Metranybus SL; Tecnalía Research and Innovation (TRI); Teknologia Aeronautikoen Zentroa Fundazioa (CTA); Basque Culinary Center Fundazioa; Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa (Aquarium); Azti Fundazioa; CIC energiGUNE - Ordezko Energiaren Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa; Tecnalía Fundazioa; Euskalit - Kalitatearen Sustapenerako Euskal Iraskundea; Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentzia; Eraikune - Euskadiko Eraikuntzaren Klusterra; Energiaren Klusterra; Gomiztegi Elkartea; APARKABISA Bizkaiko Garraio Gunea SA; CIC microGUNE - Mikro-Nano-Teknologien Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa Elkartea; CIC bioGUNE - Biozientzietako Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa Elkartea; CIC biomaGUNE - Biomaterialen Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa Elkartea; IC tourGUNE - Turismoaren Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa; CIC nanoGUNE - Nanozientzietako Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa Elkartea; Vicomtech, Ikus Elkarrekintzako eta Komunikazioko Teknologien Zentroa; Kronigune, Kronikotasunaren Arloko Bikaintasuneko Ikerketa Zentroa Elkartea; Biodonostia Osasun Ikerketako Institutua; Mendinet, Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkartea; San Mames Barria SL; Elkargi SGR; Empresa de Transformación Agraria SA; Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito SA; Sociedad Promotora-Bilbao Plaza Financiera SA; Metaposta SA, Expressive Media Project; Eraikune, Euskadiko Eraikuntzaren Kluster Elkartea; Itzarri BGAE eta Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutua, kasu batzuetan dagokien sailak edo haren erakunde atxikiek oso partaidetza txikia duten merkataritza-sozietateak, fundazioak edo erakundeak direlako eta beste kasu batzuetan partaidetza bestelako administrazio publikoekin partekatuta dagoelako.

- Zazpiturri SA; SAIOLAN SA; Central Hidroeléctrica San Pedro de Araia; Cogeneración, Energías Renovables y Medioambiente SL (CERM); Cogeneración Martiartu SL; y Naturgar Energía Grupo SA; partaidetza saldu delako edo saltzeko prozesuan dagoelako edo Eusko Jaurlaritzaren Sailaren deslotzeko prozesuan dagoelako.
- Parkeak Elkartea Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea; Kultur Klub Euskadi S.L.; Fundación Donostia/San Sebastián 2016; Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Partzuergoa eta Centro Innovación en Política Social Gizalab Fundazioa, desgiteko prozesuan daudelako edo ez eraginkor daudelako.



Erakunde pribatu asko (merkataritza-sozietateak, fundazioak edo erakundeak) utzi dira lan honen norainokotik kanpo, Eusko Jaurlaritzak, haren erakundeek edo atxikiek oso partaidetza txikia daukatelako edo partaidetza beste administrazio publiko batzuekin partekatuta dagoelako, baina ez legearen aplikazio-eremuaren barruan ez daudelako. Merkataritza-sozietateek, erakunde publikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetza haien kapital sozialaren % 50 baino gehiago bada, sektore publikoko fundazioek eta erakunde publikoek eratutako elkarteek ere bete behar dute. Era berean, urtebeteko aldian 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak orobat edo haien urteko sarrera guztien % 40, gutxienez, laguntza edo diru-laguntza publikoa denean, gutxienez 5.000 eurora heltzen badira, bete behar dute legea. Kolektibo horri buruzko azterlan zehatz bat egin liteke 2018. urtean; izan ere, diru publikoaren erabilerako gardentasuna, azken gordelekuetaraino, gobernu onaren erantzukizuna da.

Urtarrilean, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak beste egiaztapen bat egin zuen, txostena ixtean zegoen informazioa uneko errealitatearekin bat zetorrela bermatzeko helburuarekin, erakundeek aldi horretan argitaratutakoaren berri eman zein ez. Beste itzulketa bat egin zitzaizen sailei, erakundeetara berriro jotzeko eta informazioa epe labur batean ixteko.

6. Azken emaitzak 2018ko maiatzan

Azkenik, emaitzen analisisa zehatzagoa izan dadin, adierazi behar da jasotako datu batzuk (esaterako, hitzarmenak edo kudeaketa-aginduak, laguntzak, kontratuak, ondasun higiezinak...) ez argitaratzeak ez duela nahitaez esan nahi urraketa bat dagoela; izan ere, baliteke erakunde horrek hitzarmen sinaturik ez edukitzea, laguntzarik ez ematea edo ondasun higiezinik ez izatea, adibidez. Emandako orientabideetan, esan zaie komenigarria dela egoera hori ere jakinaraztea, zeren eta erakunde batek jabetzako ondasunik ez daukala, laguntzarik ematen ez duela, kontratatzen ez duela, etab. jakitea informazio garrantzitsua delako herritarrentzat, jarduketa publikoaren funtzionamendua ezagutzen laguntzen du eta.

Bestalde, hau ere zehaztu beharra dago: partaidetzako entitateen artean, oso izaera desberdineko erakundeak daude; horien artean, batzuek ez dute zuzeneko zerbitzurik ematen, eta ez dute langilerik; beraz, ez litzateke argitaratu behar, esate baterako, haien zerbitzuen kalitateari buruzko informazio estatistikorik, eta, ondorioz, hori ez



litzateke ez-betetze bat izango, Legean publizitate aktiboari buruz ezarritako betebeharrei dagokienez. Kasu horretan daude Berroeta Aldamar S. L. (museoaren eraikinaren edukitzailea), Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna, S.L. (arte-lanen edukitzailea) eta Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Higiezina (museoaren eraikinaren edukitzailea), bestek beste.



ANALIZATUTAKO ERAKUNDEAK	Erakunde autonomoak	Zuzenbide prib. erakunde publ.	Soz. publ. / merkataritza-soz.	Nort. jurid. gabeko funtsak	Fundazioak	Partzuergoak	Irabazi-asmorik gabeko beste batzuk	Guztira
EAEko sektore publikoa	10	9	39	-	7	1	-	66
Partaidetza gehiena publikoa duten eta ezein administrazioetako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak	-	-	11	4	14	4	7	40
EAEko sektore publikoaren partaidetza duten beste erakunde batzuk					5		1	6
	10	9	50	4	26	5	8	112

ERAKUNDEA	ADIERAZLEAK (ARGITARATUTAKO EDUKIAK)																				GUZTIRA/19 derrigorrezko adierazle
EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA																					
ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALA: ERAKUNDE AUTONOMOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	18
HAEE - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Eustat - Euskal Estatistika Erakundea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	19
Lehiaren Euskal Agintaritzak	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	17
Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
HABE - Helduen Alfabetatze eta B. Erakundea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	18
Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako EA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19



ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALA: ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/19 derrigorrezko adierazle
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Elankidetza)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Red Ferroviaria Vasca - Eusko Trenbide Sarea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
URA - Uraren Euskal Agentzia	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Finantzen Euskal Institutua	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	18
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	18
Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca (EITB)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19



SOZINETATE PUBLIKOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/19 derrigorrezko adierazle
Itelazpi SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SA (EJIE)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia SA (CADEM)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Euskadiko Hidrokarburo Baltzua SA (SHESA)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Hidroeléctrica Harana-Kontrasta SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Biscay Marine Energy Platform SA (BIMEP)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA (SPRI)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Parque Tecnológico - Teknologi Elkartegia SA	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	17
Arabako Teknologi Elkartegia SA	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X		16
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X		16
Arabako Eraberrikuntza Industrialdea SA (CEIA)	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		17
Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, IKEKS, SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	18
Sprilur SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Abanto-Zierbenako Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Arabako Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Arratiako Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Beterri Kostako Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19



SOZETATE PUBLIKOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/19 derrigorrezko adierazle
Busturialdeko Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Deba Bailarako Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Goierri Beheko Industrialdea SA (GOBEISA)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Lanbarren Parke Logistiko SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Tolosaldeko Apatiaerreka Industria Lurra SA (TAILSA)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Urolako Industrialdea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA (Euskotren) eta Euskotren Participaciones SA (informazioa Eusko Trenbideak-enean sartuta dago)	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	17
NEIKER-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Euskal Kirol Portua SA	X	X	X	X		X		X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	16
Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Alokabide SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Osatek SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia SA	X	X	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	17
ETB-Euskal Telebista-Televisión Vasca SA; Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca SA; Gasteiz Irratia-Radio Vitoria SA; Eitbnet SA (informazioa Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vascarenean — EITB— integratuta dago)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Euskadiko Orkestra AB	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19



EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/19 derrigorrezko adierazle
HAZI Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	18
ELIKA - Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (BIOEF)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Hobetuz - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua (Musikene)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	18
BAT Basque Team	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa (EGO)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	19
EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/19 derrigorrezko adierazle
Haurreskolak	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	17



PARTAIDETZA GEHIENA PUBLIKOA DUTEN ETA EZEIN ADMINISTRAZIO TAKO SEKTORE PUBLIKOAN SARTUTA EZ DAUDEN ERAKUNDEAK																					GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	
MERKATARITZA-SOZINETATEAK																					
Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietatea SOCADE SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Sestao Berri 2010 SA	X																			X	2
Berroeta Aldamar SL (Cristóbal Balenciaga Fundazioaren web gunean informazioa dago)	X	X				X					X	X									5
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea SA (Tabakalera)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X			X	X	X	X	13
Festival Internacional de Cine Donostia SA (Zinemaldi)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Higiezina (Guggenheim Museo Fundazioaren web gunean informazioa dago)	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X	X						X	13
Donostiako Musika Hamabostaldia SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X			X		X	X	14
Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna SL Guggenheim Museo Fundazioaren web gunean informazioa dago)	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X	X						X	13
Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztuko Arrisku Kapitalaren Sozietatea SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa IZENPE SA	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, IKEKS SA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14



BEREZKO NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO FUNTSAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
Ezten, Arrisku Kapitalaren Funtza (informazioa SGEIC SAn)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Basque, Arrisku Kapitalaren Funtza (informazioa SGEIC SAn)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Suztapen, Arrisku Kapitalaren Funtza (informazioa SGEIC SAn)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
Lanpar 2013, Arrisku Kapitalaren Funtza (informazioa SGEIC SAn)	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14



FUNDAZIOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
Biofisika Bizkaia Fundazioa	X	X	X			X					X	X							X		6
Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa- Gipuzkoa Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X		X	X			X	X				X	X		9
Cristóbal Balenciaga Fundazioa	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X			X	X	X		12
Donostia International Physics Center (DIPC)	X	X	X	X																	3
Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	14
Ficoba Fundazioa	X	X	X			X	X		X	X		X	X						X	X	10
Euskadiko Filmategia Fundazioa	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	X			X		X	X	13
Gernika Gogoratuz Fundazioa	X	X	X							X	X	X							X		6
Ikerbasque Fundazioa	X	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X				X	X	X		11
Jose Miguel de Barandiarán Fundazioa	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X	X			X		X		13
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa																					0
BCMATERIALS-Basque Center for Materials, Aplication and Nanostructures (ingelesez bakarrik)																					0
Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa	X	X	X	X	X	X					X	X					X		X		7
POLYMAT-Basque Center For Macromolecular Design And Engineering (ingelesez bakarrik)																					0



PARTZUERGOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
Europako Espalazio Bidezko Neutroien Iturriaren Espainiako Egoitza Eraiki, Hornitu eta Ustiatzeko Partzuergoa (ESS-Bilbao Partzuergoa)	X		X			X															3
Bizkaiko Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Partzuergoa	X	X		X	X	X															3
Gazteen Aterpetheen Presentziarako eta Sustapenerako Partzuergoa																					0
Miramar Jauregia Patzuergoa	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X	X					X	X	13
Gasteizen eta Araban Lanbide Heziketa Bultzatu eta Garatzeko Partzuergoa																					0
IRABAZI-ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartea-Geogarapen	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	13
Mugikortasun Iraunkorra eta Logistikako Euskal Erakundea	X																				1
Biocruces Osasun Ikerketako Institutua	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	14
BCAM-Matematika Aplikatuen Ikerketarako Zentroa	X	X		X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X		10
BCBL-Basque Center on Cognition, Brain and Language	X	X		X	X	X		X		X	X	X							X		7
MPC Ikerketa Elkartea-Materials Physics Center (ingelesez bakarrik)																					0
BC3-Centre of climate change	X	X	X	X	X	X				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		10



EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN PARTAIDETZA DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUK																					GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
FUNDAZIOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	
Arabako Artium Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X			X	X	X	X	14
Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X	X			X		X		12
Añanako Gatz Harana Fundazioa	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X		X	X	X	14
Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioa	X	X	X	X		X		X	X	X	X	X	X	X			X			X	13
Makina-Erreminten Hezkuntza Teknikorako Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X					X	X	X	X	12
IRABAZI-ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	GUZTIRA/14 derrigorrezko adierazle
Zineuskadi Elkartea	X		X			X		X	X												5

Ez da derrigorrezkoa argitaratzea



ANALIZATUTAKO ERAKUNDEAK: 112			Nahitaezko 19 edukietatik 16 baino gehiago argitaratzen dituzten erakundeak	Nahitaezko 14 edukietatik 10 baino gehiago argitaratzen dituzten erakundeak
EAEko sektore publikoa	Erakunde autonomoak	10	10	
	Zuzenbide prib. erakunde publ.	9	9	
	Soz. publikoak	39	39	
	Fundazioak	7	7	
	Partzuergoak	1	1	
	Guztizko partziala	66	66	
Partaidetza gehiena publikoa duten eta ezein administratziotako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeak	Merkataritza-soz.	11		9
	Funtsak	4		4
	Fundazioak	14		6
	Partzuergoak	4		1
	Irabazi-asmorik gabeko beste batzuk	7		4
	Guztizko partziala	40		24
EAEko sektore publikoaren partaidetza duten beste erakunde batzuk	Fundazioak	5		5
	Irabazi-asmorik gabeko beste batzuk	1		0
	Guztizko partziala	6		5



3. Aurrerapenak informazioa argitaratzeko moduan eta 2018. ekitaldirako erronkak

3-1 INFORMAZIOAREN ARGITALPENAREN BILAKAERA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAN ETA PARTAIDETZAKO ERAKUNDEETAN, ETA 2018RAKO ERRONKAK

Euskal sektore publikoko erakundeek eta partaidetzako erakundeek informazioa argitaratzeari dagokionez, agerian jarri da nabarmen aurreratu dela: *EAEko sektore publikoko erakundeek* ia guztiz bete dute, baina partaidetza gehiena publikoa duten eta *ezein administraziotako sektore publikoan sartuta ez dauden erakundeetan* kasu desberdinak daude; beraz, horietan arreta jartzen jarraitu beharko da.

Informazioa argitaratzeko modua dela eta, nabarmendu behar da ez ebaluatu osorik dagoen, eguneratuta dagoen eta ulergarria eta irisgarria den. Hala ere, aurrera daiteke hobetzeko bide luzea geratzen dela herritarrei informazio publikorako sarbidea erraztu nahi bazaie.

2018rako erronka da erakundeek beren burua ebaluatzeko prozesu bat eta kanpoko lagin-analisi bat ahalbidetzen dituen tresna automatizatu bat ezartzea, autonomia-erkidegoekin elkarlanean Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseilutik garatu denaren (MESTA) antzeko metodologia erabiliz, datu publikoetan bi zabalera-maila neurtzen baititu: alde batetik, Gardentasunari buruzko Legearen nahitaezko betetze-maila ebaluatzen du eta, bestetik, gardentasunaren kalitatea ebaluatzea ahalbidetzen du, nahitaezko adierazleei gehitzen zaizkien eta araudi osoagoetatik ateratzen diren borondatezko adierazleekin. Gainera, gardentasun-atarietan eskaintzen den informazioaren ezaugarriak neurtzen ditu, neurketa-adierazle objektiboekin: argitaratzeko modua (zuzenekoa edo zeharkakoa), gaurkotasuna, irisgarritasuna, argitasuna, egitura, berrerabiltzeko aukera...

3-2 GARDENA GARDENTASUNAREN ATARIAREN BILAKAERA

Gardena atarirako bisitek oso beherakada nabarmena izan dute, baina kontuan hartu behar da eduki gehienak *euskadi.eus* sareko beste atari batzuetakoak direla eta datu horietan zenbatu ez diren bisita propioak dituztela. Beste arrazoi bat izan daiteke



Transparencia Internacionalek ez duela ebaluaziorik egin; horrek beste administrazio batzuk, ebaluatzaileak, kazetariak eta abar argitaratutako informazioan asko sartzea eragiten du.

ARLOA	2017	2016	2015	2014
Gardena webgunea orokorrean	9.138	16.173	5.532	3.775
Autonomia-erkidegoari buruzko informazioa	335	1.283	1.422	571
Harremanak herritarrekin eta gizartearekin	179	659	593	221
Gardentasun ekonomikoa eta finantzarioa	232	954	729	372
Zerbitzuen eta horniduren kontratazioa	142	582	584	223
Lurraldearen antolamendua, hirigintza eta obra publikoak	46	162	198	108
Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	2.253	8.359	1.715	2
Gardentasunari buruzko eduki orokorrak	3.879	2.385	850	66

Hala ere, datuak eta datuak argitaratzeko beharra hein handi batean gaindituta, gardentasun-atariaren egitura, irisgarritasuna eta argitasuna birplanteatzeko fasean gaude; hain zuzen ere, dagoeneko kontratu bat formalizatu da gardentasunaren web atariak GARDENAn, Open Data Euskadin, Irekian, Kontratazioan, Geoeuskadin, Eustaten, Legegunean eta abarretan dauden datu-multzoen bistaratzeak eta grafikoak bil ditzan, datuak herritarrentzat irisgarriagoak, kontsumigarriagoak eta ulergarriagoak izan daitezten. Helburua da herritarrek, berrerabiltzeko datu irekiak eskuratzeari gain, tresna sintetikoagoetarako sarbidea ere izatea, ekintza publikoa modu errazago eta interpretagarriagoan ikuskatu eta ebaluatu ahal izateko, datuak formatu grafikoan bistaratuz. Aipatutako gunetan hauei buruzko bistaratzeak argitaratzen ditugu dagoeneko:

- Herriarren eskaeren estatistikak
- Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak
- Emandako laguntzak
- Karguen eta konfiantzazko postuen ordainsariak
- Lanpostu-zerrendak
- Adjudikazio-motaren arabera aurrekontu-bolumena
- Autonomia-erkidegoko hauteskundeak (1980-2016)
- Hauteskunde orokorrak (1977-2016)
- Lanbideren estatistikak
- Udalmap: datu sozioekonomikoak udalerriak



- Geoeuskadi: bistaratzeak mapetan
- Eustaten grafiko interaktiboak

Dena den, oso eskasak dira Open Data Euskadin eta Gardenan eskuragarri dagoen informazio- eta datu-bolumenarekin erkatuta, eta dauden bistaratze urriak *euskadi.eus* sare guztian sakabanatuta daude eta saila da horietarako sarbidea izatea.

3-3 OPEN DATA EUSKADIREN BILAKAERA

Open Data Euskadin eskainitako dataseten hazkundera oso nabarmena izan da 2017an; izan ere, 2015ean 294 gehiago egon ziren, 2016an 336 dataset gehiago, eta 2017ean 721 dataset sortu ditugu.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak *datos.gob.es* webguneko katalogoan dataset gehien argitaratzen dituen datu-iturria izaten jarraitu du, 1.800 datu-multzo baino gehiago argitaratu baitzituen 2016an eta 3.400 dataset baino gehiago baitauzka orain argitaratuta.

2016an, proiektu bat hasi zen beste euskal administrazio publiko batzuen datuak Open Data Euskadiko data-katalogoan federatzeko, eta 2017. urtean Gasteizko Udalaren, Bilboko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 672 dataset daude argitaratuta. EAEko beste administrazio batzuek datu-multzo irekiak argitaratu ahala, Open Data Euskadin sartuz joango dira.

Halaber, 2016an proiektu bat hasi genuen Open Data Euskadiko katalogoan estekatutako datuak eskaintzeko, eta 2017an Linked Data azpiegitura garatu dugu; egitura hori Eusko Jaurlaritzako estekatutako datuez elikatuz joango da. Proiektu hori aitzindaria da, zeren eta *euskadi.eus*-eko webguneetako informazioaren zati handi bat estekatutako datu gisa ere eskaini nahi baita. 2018an, datu-multzo hauek kargatuko dira Linked Data azpiegituran: Euskadiko araudia, ekitaldiak eta elkarteak.

Datu publikoen berrerabilera sustatze aldera, balio publikoa batera sortzeko Elkarlan sarien 2017ko deialdian, sari berri bat sartu zen, Open Data kultura sustatzen duten pertsona fisiko edo erakundeentzat; sari hori **Bilbao Data Lab** komunitateari eman zitzaion. 2018an, gainera, datu-irekiak berrerabiltzeko ideien lehiaketa eta datu irekiak erabiliz zerbitzu, ikerketa, web aplikazio edo gailu mugikorretarako aplikazio bat



sortzeko lehiaketa iragarriko dira, EAEko hiru foru-aldundiekin eta hiriburuetakoko hiru udalekin batera.

euskadi.eus eta Open Data Euskadin pertsona, erakunde eta ekipamenduei buruzko datuen gordailu-sistema bat sortzeko kontratazioa egin berri da; edozein informazio-sistemak erabili ahalko du, haren datuak *euskadi.eus*-en argitaratuko dira bai herritarrentzat zuzenduta bai datu ireki gisa berrerabiltzen dituzten erakundeentzat eta 2018an zehar garatuko da.

Era berean, meteorologia-datuak irekitzeko eta informazioa hedatzeko kanalak (webgunea, mugikorra, etab.) berritzeko zerbitzua 2018. urtean garatzeko kontratatu da, datu horiek formatu berrerabilgarrietan irekitzen diren modua hobetzeko eta hedatu ahal diren guztiak argitaratzeko helburuarekin; izan ere, eduki horiek bereziki interesgarriak dira herritarrentzat eta berrerabiltzen dituzten pertsonentzat.

4. Argitaratu beharreko informazioaren bilakaera eta 2018. urterako erronkak

Argitaratu beharreko informazioari dagokionez, 19/2013 Legeak agindutako informazioetakoren bat argitaratu beharra sakontasunez eta kalitate onez betetzeko lortu diren aurrerapenak jaso dira jarraian, bereziki konplexutasun-maila handiagoa duenari dagokionez, bolumenagatik, jatorriaren sakabanaketagatik eta, batez ere, antolakuntza osoan duen inplikazio-mailagatik; horrek jarduketa zehatz bat bideratu beharra ekarri du, antolakuntza osoan zabalduz:

4-1 ARAUDI APLIKAGARRIA ETA GARRANTZI JURIDIKOKO INFORMAZIOA

Oinarrizko legeak ezartzen du aplikatzekoa den araudi guztia eta garrantzi juridikoko informazioa osatzen duten dokumentu ugari argitaratu behar direla, hala nola zuzentarauak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak edo partikularren edo beste organo batzuen kontsultei emandako erantzunak, zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badauzkate, baita lege edo araudien proiektuak ere, dagokien memoria, txosten eta dokumentuekin batera, espedienteak osatzen badituzte eta jendaurrean jarri behar badira.



Horretarako, Eusko Jaurlaritzak LEGEGUNEA dauka 2012. urtetik. Euskal araudiaren atari horrek Eusko Jaurlaritzaren baliabide juridiko guztiak biltzen ditu, herritarrei modu antolatuan eta sarbide erraz eta argien bitartez helarazteko, eta zenbait eduki-motarekin osatu da, automatikoki, gordailu batzuetatik:

- Araudia (33.989 erregistro gaur egun)
- Zerga-araudia, lurralde historikoen arabera erkatuta
- EA Eren eskumenak eta transferentziak
- Garrantzi juridikoko dokumentazioa. Gordailu honek 24.754 erregistro dauzka gaur egun. Kanpoko iturrietatik datorren dotrina kentzen bada, 5.678 espediente sortu dituzte barruan eta argitaratu dituzte automatikoki TRAMITAGUNE plataformatik Eusko Jaurlaritzako sail guztiek. Eboluzio esponentziala egon da izapidetze-dokumentazio guztiarekin argitaratu diren espedienteen kopuruan.

URTEA	Argitaratutako espediente berriak	19/2013 Legean ezarritako garrantzi juridikoko informazio-motako espediente berriak
2014	55	54
2015	200	198
2016	569	244
2017	571	266

2017-12-31ko erregistroak, guztira	Barruan sortutako informazioaren erregistroak	19/2013 Legearen arabera garrantzi juridikoa duen informazioko erregistroak
24.754	5.678	4.919

Informazio hori formatu berrerabilgarrietan ere eskaintzen da, Open Data Euskadiko katalogotik.

4-2 HITZARMENAK ETA KUDEAKETA-AGINDUAK

Halaber, Legegunean modalitate guztietako hitzarmenak (protokoloak, batera finantzatzeko hitzarmenak, ondare-hitzarmenak...) eta kudeaketa-aginduak (barne-adjudikazioak, kudeaketa-aginduak eta programa-kontratuak) argitaratzen dituzte



espediente bakoitza bideratzen duten pertsonak, automatikoki Tramitaguneren bidez. Argitaratutako erabakien bilakaera nabarmena izan da eta informazio ugari eskaintzen da, formatu berrerabilgarrietan ere, Open Data Euskadiko katalogotik.

URTEA	Argitaratutako erabakien kopurua
2015	113
2016	382
2017	751

LEGEGUNEAn argitaratzen denaren eta euskal sektore publikoko webguneetan argitaratzen denaren arteko koherentziari euste aldera, sektorea osatzen duten erakundeei orientazioa eskaintzen ari zaie sinatzen dituzten hitzarmenak edo kudeaketa-aginduak zuzenean edo atxikita dauden sailaren bitartez Tramitagunen sartu ahal izateko, informazio guztia LEGEGUNEAn integratu eta bertatik herritarrei eskaini ahal izateko.

4-3 FUNTZIOAK, ERAKUNDEAREN ORGANIGRAMAK, KARGU PUBLIKOEN KATALOGOAREN IBILBIDE PROFESIONALA ETA PROFILA

2016an, karguei buruzko informazioa argitaratzen zen guneen integrazioa egin zen (Irekiko komunikazio irekiko gida eta kargudunen fitxa), informazio guztia kalitate onekoa izan zedin, eta organigrama batzuk eskuz egin ziren; horrek etengabe eguneratzea galarazten zuen. Horregatik, pertsonen, erakundeen edo ekipamenduen direktorio bat sortzeko zerbitzu bat kontratatu da. Direktorio hori erreferentzia erkidea izango da bai administrazio kanpoko bai barruko aplikazioetarako, datu publikoak erabili behar direnean. Horri esker, organigrama-formako edo bestelako bistaratzeak eraiki ahalko dira, beti eguneratuta eta kontsulta-dataren aurreko egoerei lotuta.

Informazio horren zati bat formatu berrerabilgarrietan ere eskaintzen da Open Data Euskadiko katalogoan, baina aipatutako horietara ere hedatu beharko litzateke modu integratuan.



4-4 URTEKO ETA URTE ANITZEKO PLANAK ETA PROGRAMAK, BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

Lehendakaritzako sailen planen eta gobernu-planen egutegiari buruzko informazioa argitaratzen zen webgunea egokitu egin da, legeak agintzen duen informazioa argitaratzen dela bermatzeko, eta modu automatikoan Tramitagunetik ere egiteko garapen bat ezarri da. Nolanahi ere, oraindik ez da hedatu, beste administrazio-jarduketa batzuekin egiten den bezala, espedienteak izapidetzen dituzten pertsonak izan daitezen kasuan kasuko dokumentuak Lehendakaritzako sailen planen eta gobernu-planen egutegian argitaratzeko arduradunak, baita LEGEGUNEAn ere, kalitate onekoa eta webguneko bi tokietan koherentea den argitalpen eguneratua bermatzeko.

Beste alde batetik, eta betetze-mailaren adierazleei eta emaitzei dagokienez, ohartarazi behar da 19/2013 Legeak urteko eta urte anitzeko plan eta programen betetze-maila eta emaitzak argitaratu behar direla ezarri zuen arren, neurtzeko eta balioesteko adierazleekin batera, kudeaketa publikoan ez dagoela ebaluazio-kultura nahikorik. Horren ondorioz, kasu askotan, onartutako planak ez dira ebaluatzen edo ebaluazioak jarraipen-txosten hutsak baino ez dira eta ez dute sakontzen sorrarazitako eraginak eta emaitzak ebaluatzeko adierazleetan. Horrenbestez, existitzen ez diren ebaluazio-prozesu horiek ezin dira argitaratu, agerikoa denez. Horretarako *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren* esparruan, plangintza estrategiko adimendunaren ardatza gehitu da. Horren helburua da plangintza estrategikoaren kultura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Administrazio Instituzionalaren jarduketa publikoaren ebaluazioaren kultura sustatzea, herritarrekin eta gainerako erakundeekin partekatutako diagnostikoan oinarrituta 2020-2025erako politika publikoak planifikatzeko, emaitzak xede dituzten aurrekontuak egiteko eta esku-hartze publikoak ebaluatzeko sistema bat, ebaluatzeko funtzioaren instituzionalizazioa garatzeko oinarriak jartzen dituen lege-, antolaketa- eta teknika-egitura bat sortzea gogoan hartzen duena, ezartzeko.

Horrela, gogoan hartzen da Ebaluazio Unitate bat sortzea, lanpostu berriak sortzea, ebaluazioaren arloko lankidetzaren sarea bat konfiguratzeko eta abian jarri beharreko ebaluazioen atari bat eratzea. Hori da hurrengo urteetarako erronka.



4-5 KONTRATU TXIKIAK

Eusko Jaurlaritzako sailetako kontratu txiki guztiak EAEko Kontratuen Erregistroan sartzea bultzatu da, baita euskal sektore publikoko erakundeek eta partaidetzako erakundeek formalizatutakoak ere. Horrela, argitaratutako kontratu txikien kopurua oso nabarmen hazi da 2014. urtetik; beraz, urtebetez aurrea hartu diogu Gardentasunari buruzko Legea indarrean sartzeko egunari.

URTEA	Eusko Jaurlaritzak argitaratutako KONTRATU TXIKIEN KOPURUA	Argitaratutako KONTRATU TXIKIEN KOPURUA, EAEko eremuko beste erakunde batzuk barne hartuta	REVASCONen argitaratutako KONTRATU TXIKIEN KOPURUA, guztira
2013	31	32	32
2014	1.777	1.858	1.859
2015	3.591	4.012	4.127
2016	3.125	4.031	7.893
2017	3.241	3.993	8.102

Informazio hori formatu berrerabilgarrietan deskarga daiteke, modu agregatuan nahiz desagregatuan, eta 2017an Open Data Euskadiko katalogoan sartu dira, gainerako kontratuekin batera.

4-6 EMANDAKO LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Laguntzak eta diru-laguntzak argitaratzeko, 2015ean aplikazio informatiko zehatz bat prestatu zen, Ogasun eta Finantzak Sailak sortu eta zaintzen duen datu-base batek elikatzen duena; horri esker, datuak esparru desberdinetako (datak, erakundea, onuraduna, laguntzaren munta...) bilaketa-motor baten bitartez eskuratzeko aukera dago. Hilero eguneratzea aurreikusita zegoen arren, datuak iraultzeko atzerapen luzea dago, eta gaur egun 2017ko datu osoak ez daude oraindik argitaratuta. 2018rako erronka da datuak hilero eguneratuta edukitzeko behar diren neurriei ekitea.



ERAKUNDEAK	ZENBATEKOAK GUZTIRA (€)		
	2015	2016	2017
EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRA	1.160.653.532,63	1.018.630.918,54	227.680.519,49
HABE-HELDUEN ALFABET. BERREUSKALDUNTZERAKO ERAK.	29.905.572,72	6.835.449,69	118.690,79
IVAP-HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA	914.091,10	885.561,96	27.520,35
EUSTAT-EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA	51.067,36	13.672,64	22,24
EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	1.445.830,61	1.276.234,21	0,00
POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA	18.824,34	12.165,10	0,00
OSALAN-LANeko SEGURTASUN OSASUNERAKO EUSKAL ERAK.	822.511,94	900.343,00	0,00
KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTOA	13.541,39	2.345.351,60	115.170,28
LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	115.234.030,81	97.183.125,46	461.961,89
MEMORIA, BIZIKIDETZ ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA	0,00	145.000,00	110.000,00

Argitaratzen den informazioa oso zabala da, eta posible da diru-laguntza berberaren onuradun guztiak bilatzea, bai eta pertsona fisiko edo juridiko berberari emandako diru-laguntza guztiak ere. Pertsona fisikoen identifikazioa ezabatu egin da izaera pertsonaleko datuen babeserako arauetan ezarritako mugekin zerikusia duten diru-laguntzei dagokienez. 2016an, bistaratze grafikoak egin dira, laguntzen eta diru-laguntzen datu orokorrak hobeto ulertzea ahalbidetzeko.

Datuak formatu berrerabilgarrietan deskarga daitezke. Hala ere, ez dakigu datu horiek zein berrerabilgarritasun-lizentziaren bitartez eskaini genitzakeen Open Data Euskadin, estatuko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari kontsulta egin diogun arren ez dugulako erantzun argirik jaso. Beraz, gaur egun Open Data Euskadiko katalogoan ez da onuradunen daturik eskaintzen.

Epe ertainean, IKUS kontrol ekonomikoko aplikazio orokorra berritzeko prozesuan, laguntzak eta onuradunak argitaratzeko sistema hobe bat aurreikusi beharko litzateke, informazioa sortzeko sistema bikoitzari eutsi behar ez izateko; alegia, bertsioa jatorriz elebiduna izango litzateke eta, gainera, informazioa denbora errealean argitaratuko litzateke, gehienez ere hilabeteko kadentziaz, benetako kontu-ematea bermatze aldera.

4-7 LZ ETA ENPLEGATUEN BATERAGARRITASUNARI BURUZKO EBAZPENAK; ORDAINSARIAK, KARGUA UZTEAREN ONDORIOZKO KALTE-ORDAINAK ETA KARGU PUBLIKOEN BATERAGARRITASUNARI BURUZKO EBAZPENAK

Gaur egun, eduki horiei buruzko oso kalitate oneko informazioa argitaratzen da GARDENAn eta Open Data Euskadin, kargu publikodunen katalogoa kudeatzeko egon



den automatizazioari esker eta indarreko araudiarekin bat etorritik bigarren jardueraren publiko edo pribatu baterako baimena eskatzeko prozedurari esker.

Baimenak argitaratu ditugu EAEko Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen mendeko langileei dagokienez, baita Ertzaintzako eta Hezkuntzako langileei dagokienez ere. Dena den, beste talde batzuen gaineko informazioa argitaratzeke dago, esaterako, Justizia Saileko eta Osakidetzako langileei dagokiena, eta aldizka eguneratzeko mekanismo automatikoak ezarri behar dira.

4-8 19/2013 LEGEA BETETZEAREKIN LOTURA BEREZIRIK EZ DUTEN ARGITARATUTAKO ADIERAZLEAK

- **Gobernu-programen jarraipena.** 2014an, webgune bat sortu zen eta handik egin da 2012-2016rako gobernuaren-programaren jarraipena, herritarrei legegintzaldiko konpromisoei buruzko kontuak emateko (iruzkinak egin dakizkiekeen edukiekin). XI. Legegintzaldiari dagozkionekin eguneratu da.

Eusko Jaurlaritza

Gobernu Programa. Legealdia: 2016 - 2020

Gobernu Programa. Legealdia: 2016 - 2020

Gobernu Programa sailka

Zuhaitz guztia erakustea

• Oinarria 1. Enplegua, berraktibazioa eta iraunkortasuna

• Oinarria 2. Giza garapena, integrazio soziala, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak

• Oinarria 3. Elkarbizitza eta Giza Eskubideak

• Oinarria 4. Autogobernu gehiago eta hobea

- **Kargu publikoei buruzko informazioa.** 2015. urtean, karguen fitxetan dagokien administrazio-organismoak kudeatzen duen aurrekontua jaso zen, eta, 2016an, bere funtzioak betetzeko dituen lanpostuen zerrendako postuak gehitu zaizkio. Halaber, haien jardueraren inguruko berriei, bideoei, argazkiei eta xedapenei buruzko informazioa ematen da. Sailburu-mailako karguak direla eta, gobernu-programan haien erantzukizunpekoak diren ekintzak ere argitaratzen dira.



- **Sailburuen bidaia-gastuak.** 2016an, sailburuen bidaia-gastuei buruzko informazioa argitaratu zen, baina etengabeko eguneratze-sistema formalizatu behar da.
- **Urteko Araugintza Plana.** 2017ko maiatzaren 9an, 2017ko Urteko Araugintza Plana, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritakoa, onartu eta argitaratu zen, eta 2018ko otsailaren 16an, 2018. urteari dagokiona.



II. INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEA IZATEKO ESKUBIDEAREN EZARPENA

2015eko urtarrilean, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea indarrean sartu baino urtebete lehenago, autonomia-erkidegoei dagokienez, informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea baliatzeko prozedura ezarri genuen.

Prozedura hori PLATEA plataforman jarritako aplikazio informatiko baten bitartez ematen da; bertara egoitza elektronikotik sartzten da, eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskaerak jasotzeko aukera ematen du, bao kanal elektronikotik, bao posta bidez edo aurrez aurre. Elektronikoak ez diren kanaletatik hartutako eskabideak Zuzenean zerbitzuaren bidez sartzten dira sisteman. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortzeko dekretua indarrean jarri zenean, 2016ko urrian, aplikazio hori bera egokitu zen herritarrek euskal administrazio publikoen sarbide-ukapenak direla-eta aurkeztutako erreklamazioak bide elektronikoen bitartez ere kudeatzeko.

Antolakuntzaren ikuspuntutik, Zuzenean zerbitzuak sailkatzen du eskaera; horrek esan nahi du arloan eskumena duen sailerako berehalako eskalatua dagoela, espedientea dagokion moduan izapidetzeko. Sail bakoitzak zehazten du nork izapidetu behar duen eta informazioa non jaso behar den, baita ebazpena emateko organo eskuduna zein den ere. Erreklamazioak zuzenean heltzen dira Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordera, eta haren buruak txandaka banatzen ditu hori osatzen duten bi kideak batzordearen osoko bilkuran ebazpen-proposamena aurkezteko.

Kanal elektronikoa bai egoitza elektronikotik bai GARDENA Gardentasunaren Ataritik sar daiteke. Dena den, hori ez da oso irisgarria eta zuzeneko sarrera sortu beharko litzateke *euskadi.eus*-eko edo *ejgv.eus*-eko etxeko orritik, zeren eta, estatistikek erakusten dutenez, horrela egiteak eragin handia duelako jasotako eskaeren kopuruan. Nazioarteko erakundeen orientabideei jarraikiz, identifikazio elektronikoa egiteko modua berrikusi behar da, identifikazio hutsa edo nortasuna egiaztatzeke sistema arin bat nahikoa izan dadin, hau da, disuasio-eraginik izan ez dezan.

XI. Legegintzaldi honetan gobernu berrantolatu zenean, eta legegintzaldiaren konpromiso gisa, Gobernu Kontseiluaren 2017ko uztailaren 11ko erabakiaren bidez, Gobernantza, Gardentasun eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea



sortu zen, Eusko Jaurlaritzak gardentasunari eta herritarren partaidetzaren arloan bideratzen dituen jarduketak koordinatzeko organo gisa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxiki zaio eta funtzio hauek hartzen ditu gain:

1. Gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren alorreko plangintza zuzendaria ezartzea.
2. Publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloan jarraibideak, protokoloak eta jarduteko irizpideak proposatzea batzordea atxikita dagoen saileko titularrak Gobernu Kontseiluari onartzeko proposa diezazkion.
3. Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria jasotako konpromisoak zabal daitezen bultzatzea.
4. Elkarlaneko eta kontuak emateko ikuspegia duten politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa bultzatzea, era horretako politika eta zerbitzuek izan dituzten emaitzei eta eraginei buruz.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek indarrean dagoen araudiak publizitate aktiboari buruz ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko nahitazeko zereginak koordinatzea.
6. Nazioarteko gardentasunaren indizeetan lidergoa sendotzeko behar diren jarduketak bultzatzea.
7. Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren izapidetzea koordinatzea eta haren jarraipena egitea, ahalik eta azkarren eta ahalik eta kalitate onenarekin erantzuten zaiela bermatzeko.
8. Informazio publikoa kudeatzeko eta argitaratzeko baliabideen, plataformen eta garapen informatikoen erabilera sustatzea.
9. Eusko Jaurlaritzako sailetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan gardentasuna ezartzeari buruzko balantzeen urteko txostenen berri izatea.

Batzordea 2017ko irailaren 13an eratu zen eta oinarrizko euskarria bihurtu da euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen eta partaidetzako erakundeen publizitate aktiboko betebeharrak sustatzeko egindako lanerako, baita informazio publikoa eskuratzeko prozeduraren, oinarrizko araudian araututakoaren, funtzionamendu egokirako ere. Batzorde horretan, sailen birkonfigurazio berriak direla medio, talde teknikoek aldaketak ekarri baitzituzten, igarri zen talde berriei gardentasunari eta gobernu onari buruzko prestakuntza eskaini behar zitzaizela. Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak eman zien prestakuntza hori, 41 pertsonari, 2017ko urriaren 6an eta 23an egindako saio banatan.



2015etik informazio publikoa eskuratzeko jaso diren eskaeren kopurua oso txikia da beste autonomia-gobernu batzuek jasotzen dutenarekin erkatuta. Horren arrazoi nagusietako batzuk dira Zuzeneanek herritarrekin harremanean egoteko eskaintzen duen postontziak zerbitzu ona ematen duela, herritarrentzat zaila dela identifikazio elektronikoa edukitzea eta prozeduran erregistratzen ez diren kanal informalak erabiltzen direla informazioa eskuratzeko.

URTEA	Jasotako eskaeren kopurua	Onartu ez direnen kopurua	Sarbide osoa emateko ebazpenen kopurua	Sarbide partziala emateko ebazpenen kopurua	Ukatzeko ebazpenen kopurua	Atzera egindakoen edo bideratutakoen kopurua	Ebazteko batez besteko denbora
2015	30	3	23		3	1	27 egun natural
2016	67	6	53			8	20 egun natural
2017	56	8	38	3		7	23.5 egun natural

Epeak zaintzen jarraitu behar da; izan ere, oraindik ohikoa da Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzatik sailei abisuak eman behar izatea epeak luza ez daitezen, ebazpenak epez kanpo eman ez daitezen eta administrazio-isiltasunik gerta ez dadin.

Informazio hori GARDENAn argitaratuta dago, ebazpenekin batera, jasotzen dituzten datu pertsonalak kendu eta interesdunei jakinarazi ondoren.

Sail guztiak inplikatu dira prozeduran, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, Ingurumen eta Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailak eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak jaso dituzte eskaera gehienak. Ez da EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeen eskaerarik jaso (URArekin izan ezik). Nolanahi ere, emandako informazioaren bat helarazi digute sektore publikoko zenbait erakundek, eta ez dakigu zein den kausa: benetan existitzen ez direlako, ezarritako prozedurari jarraitu gabe erantzuten direlako edo, besterik gabe, ez direlako erantzuten ari. Euskal sektore publikoko erakundeekin eta partaidetzako erakundeekin egindako sentsibilizazio- eta aholkularitza-prozesuan, adierazi da komenigarria dela beren web atarietan gehitzea Eusko Jaurlaritzak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko ezartzen



duen prozedurarako sarbidea, benetan ebazten dela eta jarduera guztiaren jarraipena egiten dela bermatzeko.

Irailaren 13ko 128/2016 Dekretua, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoa, irailaren 16an argitaratu zen. Horren helburua da herritarrek informazio publikoa eskuratzeari dagokionez EAEko administrazio publikoek haien jarduketa-eremuan emandako ezezko ebazpen ororen aurka, espresuki edo presuntzios eman, aukeran eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik jartzen diren erreklamazioei erantzutea. Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren urriaren 6ko aginduaren bidez, batzordea osatu zen.

Taula honetan jasotzen dira 2017ko abenduaren 31ra arte jasotako eta ebatzitako erreklamazioak (Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak eman du):

	Erreklamazioen kopurua				
URTEA	GUZTIRA	Udalen sarbide- ukapenaren aurka	Aldundien sarbide- ukapenaren aurka	Eusko Jaurlaritzaren sarbide- ukapenaren aurka	Beste erakunde batzuen sarbide- ukapenaren aurka
2016	2	1 (erreklamazio baietsia)	1 (erreklamazio bideratua)		
2017	32	10 (erreklamazio baietsiak)	1 (erreklamazio baietsia)	6 (erreklamazio baietsiak)	
		1 (erreklamazio onartu gabea)		2 (erreklamazio onartu gabeak)	1 (erreklamazio onartu gabea)
				1 (erreklamazio ezetsia)	
				2 (erreklamazio artxibatuak)	
		6 (ebazteke 2017- 12-31n)		2 (ebazteke 2017- 12-31n)	
GUZTIRA		18 erreklamazio	2 erreklamazio	13 erreklamazio	Erreklamazio 1